

2020-2022 epe  
ertainerako  
aurrekontu-plana

IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA

## **AURKIBIDEA**

<b>1. SARRERA</b>	<b>2</b>
<b>2. APLIKAZIO-EREMUA</b>	<b>3</b>
<b>3. IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN AURREKONTUAREN EZAUGARRIAK</b>	<b>5</b>
<b>4. 2020-2022 AURREKONTU-PLANA EGITEAN KONTUAN HARTUTAKO MUGAPENAK ETA ABIABURU-HIPOTESIAK</b>	<b>7</b>
<b>5. 2020-2022 ALDIRAKO DIRU-SARREREN AURREKONTU-PLANA</b>	<b>8</b>
5.1. 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planerako aurreikusitako diru-sarrera arrunten bilakaera.	8
5.2. 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planerako aurreikusitako kapitaleko diru-sarreraren bilakaera.	9
5.3. 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planerako aurreikusitako finantzazko diru-sarreraren bilakaera.	9
<b>6. 2020-2022 ALDIRAKO GASTUEN AURREKONTU-PLANA</b>	<b>10</b>
6.1. 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planerako aurreikusitako gastu arrunten bilakaera.	10
6.2. 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planerako aurreikusitako kapitaleko gastuen bilakaera.	10
6.3. 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planerako aurreikusitako finantzazko gastuen bilakaera.	11
<b>7. 2020-2022 ALDIRAKO FINANTZA- ETA AURREKONTU-MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA ETA EGONKORTASUN-HELBURUAK BETETZEA</b>	<b>11</b>
7.1. Finantza- eta aurrekontu-magnitude nagusien bilakaera: aurrezte eta zorpetzea.	11
7.2. 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planean aurrekontu-egonkortasuneko helburua betetzea.	12
7.3. 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planean gastu-araua betetzea.	13
7.4. Zor publikoaren helburua betetzea.	15
<b>8. PASIBO KONTINGENTEAK.</b>	<b>15</b>
<b>ERANSKINAK</b>	<b>16</b>

## 1. SARRERA

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren printzipio orokorren barnean, 5. artikulua urte aniztasunaren printzipioa ezartzen du. Zehazki, adierazten du herri-administrazioen eta lege horren aplikazio-eremuko gainerako subjektuen aurrekontuak epe ertaineko aurrekontu-esparru batean egingo direla, eta esparru hori Europako araudiaren arabera aurrekontuen onspena eta gauzatzea arautzen duen urte aniztasunaren printzipioarekin bateragarria izango dela.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren VI. kapituluak, aurrekontuen kudeaketari buruzkoak, ezartzen du 29. artikuluan herri-administrazioek epe ertainerako aurrekontu-plan bat egingo dutela, Egonkortasun Programan sartuko dena. Bertan sartuko da urteko aurrekontuak egitea, eta, gainera, horren bidez, aurrekontu-programazioa aurrekontu-egonkortasuneko eta zor publikoko helburuekin bat datorrela eta gastu-arauaren arabera dela bermatuko da.

Epe ertainerako aurrekontu-plana hiru urterako izango da, gutxienez, eta parametro hauek jasoko ditu, besteak beste:

a) Herri-administrazioen aurrekontu-egonkortasuneko, zor publikoko eta gastu-arauko helburuak.

b) Diru-sarreraren eta gastuen partida nagusien proiektzioak, joera-bilakaera (hau da, aldaketei lotu gabeko politikan oinarritua) eta aintzat hartutako aldirako aurreikusitako neurrien eragina kontuan harturik.

c) Diru-sarreraren eta gastuen proiektzio horiek oinarri dituzten kasu nagusiak.

d) Ebaluazio bat, aurreikusitako neurriek finantza publikoen epe luzerako egonkortasunari nola eragin diezaioketen aztertzeko.

Epe ertainerako aurrekontu-planean hartutako proiektzioak aurreikuspen makroekonomiko eta aurrekontu-aurreikuspenetan oinarrituko dira, eta horiek urteko aurrekontu-prozesuan ezarritako metodologia eta prozeduren arabera egingo dira.

Araua amaitzeko, ezartzen da epe ertainerako aurrekontu-planaren aldaketa edo desbideratze ororen berri eman eta azaldu egin beharko dela.

HAP/2105/2012 Aginduak, urriaren 1ekoak, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan informazioa emateko aurreikusitako betebeharrak garatzekoak, 6. artikuluan, ezartzen du epe ertainerako aurrekontu-planari buruzko informazioa –tokiko erakundeen aurrekontuak hartuko dituzten aurrekontu-planak– urte bakoitzeko martxoaren 15a baino lehen bidali behar dela:

*6. artikulua. Epe ertainerako aurrekontu-planari buruzko informazioa.*

*Urte bakoitzeko martxoaren hamabostan baino lehen, aurrekontu-egonkortasuneko eta zor publikoko helburuaren gainean eskuragarri dagoen informazioarekin bat, epe ertainerako aurrekontu-planak bidaliko dira, zeinetan sartuko den urteko aurrekontuak egitea. Epe*

*ertainerako aurrekontu-plan horiek pasibo kontingenteen gaineko informazioa hartu behar dute barnean, berme publikoena eta mailegu berankorrena, aurrekontu publikoetan modu esanguratsuan eragina izan dezaketena, eta aurrekontu-programa egiteko beharrezkoa den informazioa eta kontuan hartutako aldirako aurreikusitako politikei eta neurriei buruzkoa, joera-bilakaeratik abiatuta, aurrekontu-helburuak lortzeko bidea ematen dutenena.*

HAP/2105/2012 agindu horren 5. artikulua araber, bidaltze hori bitarteko elektronikoen bidez egin behar da eta bai helburu horretarako Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak (MINHAFP) egokitzen duen sistemaren bidezko sinadura elektronikoen bidez ere. Horri dagokionez, Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioa plan horien komunikazio elektronikorako bete beharreko formularioak dituen gida ari da kaleratzen urtero. Hartara, plan honetako egoera-orriak eta taulak 2019-2021 aldirako planei dagokien dokumentuan dauden formularioetara egokituta aurkezten dira, oraindik ez baitakigu ziur une honetan 2020-2022 aldiari dagokion dokumentua kaleratu denik.

2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-plana, horrenbestez, aipatu den egonkortasun-araudia betetze aldera aurkezten da, eta bai orain arte Iruñerriko Mankomunitateko organoek hartutako ildo estrategikoei eta neurriei lotuta ere.

2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planean dauden aurrekontu-egoerak, edonola ere, une bakoitzean indarrean dagoen aurrekontu-egonkortasuneko araudiak ezarritako legezko helburuak eta mugak betetzera baldintzatuta geldituko dira.

## **2. APLIKAZIO-EREMUA**

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak hau jasotzen du:

*2. artikulua. Aplikazio-eremu subjektiboa.*

*Lege honen ondorioetarako, unitate hauek osatzen dute sektore publikoa:*

*1. Herri-administrazioen sektoreak, 1996ko ekainaren 25eko Kontseilu Europarraren 2223/96 Araudiak (EE) onartutako **Nazioetako eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemaren** definizioarekin eta mugapenarekin bat etorriz. Sistema horren araber zehaztutako azpisektore hauek ere barne hartzen ditu:*

- a) Administrazio zentrala (Estatua eta administrazio zentralako organismoak biltzen ditu).*
- b) Autonomia-erkidegoak.*
- c) Toki-erakundeak.*
- d) Gizarte Segurantzako administrazioak.*

*2. Aurreko paragrafoan jasota ez dauden herri-administrazioen mendeko gainerako enpresa-entitate publikoak, merkataritza-sozietateak eta zuzenbide publikoko erakundeak ere hartuko dira sektore publikotzat, eta lege honen arauetan horiei buruz **zehazki** xedatutakoari lotuta geldituko dira.*

HAP/2105/2012 Aginduak hau jasotzen du, antzeko zentzuan:

*2. artikulua. Aplikazio-eremu subjektiboa.*

*Agindu honen aplikazio-eremu subjektiboaren barnean hauek daude, eta, horrenbestez, informazioa emateko betebeharren mende:*

*1. Autonomia-erkidegoak eta toki-korporazioak, 1996ko ekainaren 25eko Kontseilu Europarraren 2223/96 Araudiak (EE) onartutako **Nazioetako eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemaren** definizioarekin eta mugapenarekin bat etorriz.*

*2. Aurreko atalean jasota ez dauden gainerako enpresa-entitate publikoak, merkataritza-sozietateak eta autonomia-erkidegoen eta toki-korporazioen mende dauden gainerako erakundeak agindu honetako arauetan haiei buruz **zehazki** xedatutakoari lotuta geldituko dira.*

Herri-administrazioen sektorean sartzea zehazteko gakoa, hau da, zein erakunde, sozietate, fundazio eta abar sartzan diren toki-erakunde moduan eta ez "gainerako" barnean zehazteko, hemen garatzen ez den Nazioetako eta Eskualdeetako Kontuen Europako Sistemari egindako erreferentzian dago.

Horretarako, adierazgarriagoa eta zehatzagoa da 2018-2020 aldirako Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren dokumentu-gidako testua. Zehazki, hau ezartzen du:

*2.1.- Termino kontsolidatu edo bateratuetan aurkeztutako informazioa.*

*Toki-erakundearen aurrekontu-plana maila bateratuan egin beharko da **toki-erakundearen barnean Kontabilitate Nazionaleko "Toki-korporazioen" S.1313 azpisektorearen zati diren** erakunde guztietarako.*

*Informazioa termino kontsolidatu edo bateratuetan adierazita egongo da, aurrekontu-egonkortasuneko araudiaren arabera. Ondorioz, zenbatekoak, eurotan adierazita, hauen baturari dagozkionak izango dira:*

- Toki-erakunde nagusia.*
- Toki-erakunde nagusiaren mende dauden organismo autonomoak.*
- Toki-erakunde nagusiarekin lotuta dauden edo haren mendekoak diren herri-erakundeak, nagusiki merkataritzako diru-sarreraren bidez finantzatzen ez diren zerbitzuak eman edo ondasunak ekoizten dituztenak.*

*Bateratze-perimetroa eratzen duten erakundeak Tokiko Sektore Publikoko Erakundeen Inbentarioan dagoen informaziotik hartuko dira. Erabiltzaileak baja eman ahal izango du edo, gainerakoan, Erakundearen Administrazio Publikoaren sektorearen barnean sartu behar duten edo sortuko diren erakunde berriak sartu ahal izango ditu kontuan hartutako aldiaren ekitaldietakoren batean.*

2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-plan hau egin den unean, Iruñerriko Mankomunitatearen mende dagoen erakunde edo organismo bakarra Iruñerriko Zerbitzuak, S.A. (SCPSA) sozietatea da, %100ean Mankomunitatearen jabetzakoa. Mankomunitateak dituen eskumenen zerbitzuetako batzuk ematen ditu kudeaketa zuzeneko erregimenean. Sozietate hori "finantzazkoa ez den sozietate" moduan sailkatuta dago "Tokiko Sektore Publikoko Erakundeen Inbentarioan" eta "Finantzazkoak ez diren sozietate publikoak: Tokiko Administrazioa" S.11001 azpisektorean sartuta, Kontabilitate Nazionalan (IGAE) sailkatzeko eraginetarako.

Horrenbestez, ez da egokia kontabilitateko eta aurrekontuko bateratze-perimetroan sartzea txosten honen eraginetarako.

Horrekin bat eginez, Iruñerriko Mankomunitatearen 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-plana "Iruñerriko Mankomunitatea" toki-erakundeak berak berariaz eta zuzenean bere gain hartutako diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenarekin bat dator, egokia izan gabe SCPSA bere mendeko sozietatearen aurreikuspenekin bateratzea.

### **3. IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEAREN AURREKONTUAREN EZAUGARRIAK**

Plan hau egiteko unean Iruñerriko Mankomunitateak bere gain hartuta dituen eskumenak hauek dira:

- 1) Edateko ona den urez hornitzea, estolderia, saneamendua eta hondakin-uren arazketa, Iruñerriko Ibai Parkearen kudeaketa, eta energia lortu, aprobetxatu eta saltzea.
- 2) Hiri-hondakin solidoak bildu, tratatu eta aprobetxatzea.
- 3) Bidaiarien garraio publikoa Iruñerriaren esparruan.
- 4) Iruñerrian taxi zerbitzua batera emateko eremuan baterako kudeaketa eta antolaketa egitea (Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legearen Xedapen Gehigarri Bakarra).

SCPSA bere mendeko sozietateak aginduta du aurreko 1) eta 2) paragrafo horietan zerrendatutako zerbitzuen kudeaketa zuzena, barne hartuta agindutako zerbitzuen erabiltzaileekiko eta onuradunekiko erlazio juridikoaren titulartasuna, eta, beraz, zerbitzu horiek eman eta kobratzeagatiko diru-sarreraren titularra da, eta, era berean, bere gain hartzen ditu haiek egoki emateko beharrezkoak diren gastuak eta inbertsioak. Ondorioz, eta oso esanguratsua ez den salbuespenen batengatik ez bada, zerbitzu horiekin lotutako eragiketek ez dute islarik Iruñerriko Mankomunitatearen beraren aurrekontuan.

Iruñerriaren esparruan bidaiarien garraio publikoaren zerbitzua zeharkako kudeaketa-erregimenean ematen da, Mankomunitatetik independentea den enpresa bati kontzesioa emanda. 2009ko irailaren 7ko Iruñerriko Mankomunitateko Batzar Nagusiaren Akordioaren bidez eman zen egungo kontzesioa, eta kontzesioaren epearen indarraldia 2019ko urriaren 31n amaituko da. Esleitzea eraendu zuten oinarriak eta kontzesioaren kontratua aplikatzean, enpresa kontzesiodunak bere gain hartzen du zerbitzuaren kudeaketa eta ustiapena, dagozkien gastu eta inbertsioekin. Ordainketaren oinarria garraioko tituluak (tarifak) jaulkitzetik eratorritako diru-sarrerak dira, Mankomunitateak emandako diru-laguntzak osatuta, kontzesioaren oinarri horien arabera zehaztuta.

Iruñerrian taxi zerbitzua batera emateko eremuan baterako kudeaketa eta antolaketa egitetik eratorritako jarduketak zuzenean hartzen ditu bere gain Iruñerriko Mankomunitateak.

Aurreko guztiaren ondorio moduan, Mankomunitatearen aurrekontuek ezaugarri hauek dituzte:

- Alde batetik, bere egiturak eta erakundearen erakunde-jarduerak berezkoak dituzten gastuak jasotzen dituzte, gehienbat 1. kapituluan bildutakoak (Langile-gastuak), eta bai zor bizitik eratorritako finantza-karga ere (mailegu bakarra, etorkizuneko egoitza hartzeko eraikina erosteko hitzartutakoa). Gastu horiek guztiak gastuen aurrekontu osoaren %5 inguru dira. Gastu horiek, zati txiki batean, ondarezko diru-sarrerekin berdintzen dira (bere titulartasunekoak diren higiezinetan telefonia mugikorreko antenak kokatzeko baimenetatik datozenak batez ere), eta SCPSAri dagokio gainerako saldoa berdintzea, erakundearen egiturari eusteko ekarpenen bidez. Ekarpene horiek transferentzia arruntak dira, eta beren zenbatekoa zehazten da aurrekontuan jasotako erakundeko eta egiturako gastuak zehazki berdintzeko moduan (9 Gastu-arloa), era berean orokorrak diren ondarezko diru-sarrerei dagokien zenbatekoa kendu eta gero. Hortaz, ez da espero izatekoa inolako desorekarik kontzeptu horiei dagokienez.
- Gastuen aurrekontuaren zati handiena garraio publikoko programei esleitutako partidek eratzen dute (Eskualdeko Hiri Garraioa eta taxiaren zerbitzuaren kudeaketa). Zati txiki batean arloaren diru-sarrerek (tasak, zehapenak...) finantzatzen dituzte gastu horiek, baina batez ere Foru Komunitateko Administrazioak eta zerbitzuaren esparrukoak diren udalek egin beharreko ekarpenek. Iruñerrian bidaiarien garraio erregularraren ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legearen arabera (beste alderdi batzuen artean, zerbitzuaren finantzaketa arautzen du), ekarpen horiek zerbitzuaren defizita estali behar dute, eta ondoko ondoko garraio-planen arabera finkatzen dira, lege beraren arabera izapidetutako planen arabera. Azken batean, bai egun indarrean dagoen planak, 2017-2019 aldirako Iruñerriko Hiri Garraioko VI. Planak, bai eta aurrekoak ere ekarpen horiek erregularizatzeko mekanismoak dituzte, hartara, ekitaldi bakoitzean benetan erregistratutako defizitera doitzeko azkenean. Hortaz, garraio publikoaren beraren gastuen eta diru-sarreren partiden artean egon daitezkeen aurrekontuko desorekak egozpeneko denbora-desberdintasunak baino ez dira, ondoko ondoko ekitaldietan berdintzen direnak.
- Azkenik, aurrekoek baino garrantzi askoz ere txikiagoarekin, Iruñerriko Ibai Parkea finantzatzen laguntzeko udaletatik jasotako ekarpenak direla-eta, SCPSAri egindako transferentzia ageri da, haren kudeaketa aginduta baitu sozietateak. Ekarpene horiek diru-sarrera gisa ageri dira Mankomunitatearen aurrekontuan. Zenbatekoa SCPSAra transferitzen den berbera da zehazki eta gastu gisa erregistratzen da, eta, beraz, bi partidek etengabeko orekari eusten diote.

Azken batean, esan daiteke zuzenean Mankomunitateak garatzen dituen jardueren izaerak berak, eta zehazkiago haiek finantzatzeko mekanismoek, helburu zehaztutako lotetsitako funts batzuen administratzaile izatetik harago gutxi doan eginkizuna ematen diotela Mankomunitateari eta egiturazko aurrekontu-desorekak agertzeko aukera minimizatzen duela.

#### **4. 2020-2022 AURREKONTU-PLANA EGITEAN KONTUAN HARTUTAKO MUGAPENAK ETA ABIABURU-HIPOTESIAK**

Eskualdeko Hiri Garraioaren zerbitzuaren kudeaketak, eta bereziki hura ustiatzea arautzen duen kontzesio-kontratuak, aurreko atalean garatu den moduan, Iruñerriko Mankomunitatearen aurrekontuak eratzen dituzten gastuen eta diru-sarreraren zati handiena dakar.

Iruñerrian bidaiarien garraio erregularraren ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legean jasota dagoenaren arabera, Iruñerriko Mankomunitateko Batzar Nagusiak, 2017ko urriaren 26an egindako saioan, "2017-2019 ALDIRAKO IRUÑERRIKO HIRI GARRAIOKO VI. PLANA" onartu zuen. 2017-2019 aldirako plan honek, beste atal batzuen artean, aldi horretarako aurreikusitako jarduketaren ebaluazio ekonomiko zehatza du, eta horrek, legezko aurreikuspenekin bat, gerta litezkeen egokitzapenak edo aldaketak izan ezik, neurri handi batean aurrez zehazten ditu zerbitzu horri dagozkion aurrekontuko izendapenak eta aurreikuspenak, bere denbora-esparruan sartutako ekitaldietakoak. Hori dela-eta, 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-plan hau, 2019ko ekitaldiko Eskualdeko Hiri Garraioaren (barne hartuta taxiaren zerbitzuaren kudeaketa) gastuei eta diru-sarrerei dagokienez, "2017-2019 ALDIRAKO IRUÑERRIKO HIRI GARRAIOKO VI. PLANEAN" ekitaldi horretarako jasotako aurreikuspenen isla zehatza da.

2020ko eta 2021eko ekitaldietarako, behar bezala onartuta dagoen garraio-plan bat egoteaz gain, etorkizuneko planak egitean eta, ondorioz, beren ebaluazio ekonomikoan ziur asko eragin esanguratsua izango duten bi inguruabar gertatzen dira batera. Hauek dira:

- Egungo kontzesioaren denbora-indarraldia 2019ko urriaren 31n amaituko da. Beraz, une honetan ezin da aurreratu, ezta gutxi gorabehera ere, egun horretatik aurrera zerbitzuaren ustiapena eraenduko duten ereduak, oinarriak eta baldintza ekonomikoak.
- Egun, Iruñerriko Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana aztertu eta idazteko fasean dago. Espero izatekoa da hartatik berrikuntza garrantzitsuak erortzea zerbitzuaren etorkizuneko konfigurazioan, baina une honetan ezinezkoa da haiek zehaztu eta kuantifikatzea.

Inguruabar horiek izanik, 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-plan honetan aukeratu da, hurrengo ataletan zehatz azalduko den moduan, 2019rako aurreikusitako zerbitzuaren joera-proiektzioa egitea 2020tik 2022rako ekitaldietara, baina horrek kalterik ekarri gabe epe ertainera zerbitzuaren kudeaketan planteatu litezkeen aukeren eta baldintzatzaileen inguruan.

Eskualdeko Hiri Garraioa alde batera utzirik, eta aurrekontuak ukitzen dituzten gainerako alderdietarako, egun eskura dugun informazioarekin bat egonda, ez da kontuan hartu aldaketa adierazgarriak. Ez da aurreikusten eskumen eta zerbitzu berririk hartzea plan honen denbora-mugan, ez eta aldaketarik egitea ere SCPSA bere sozietatearekin dituen erlazio ekonomikoetan edo Mankomunitateko langileen plantilla organikoan ere.



Hala eta guztiz ere, nabarmendu behar da plan hau egiteko garaian Nafarroako Toki Administrazioa erreformatzeko foru legearen proiektua onartu eta bidali dela Parlamentura. Eta horrek modu esanguratsuan izan dezake eragina Iruñerriko Mankomunitatean, arriskuan jarrita baita erakunde gisa aurrera jarraitzea ere.

## 5. 2020-2022 ALDIRAKO DIRU-SARREREN AURREKONTU-PLANA

### 5.1. 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planerako aurreikusitako diru-sarrera arrunten bilakaera.

Diru-sarrereren aurrekontu-proiektzioak egitean, irizpide hauei jarraitu zaie:

3. kapituluko diru-sarrera guztiak –ia bere osotasunean taxiaren eta bidaiarien garraio publikoaren zerbitzuetako izapide eta jarduerengatik tasei dagozkie– beren egungo gauzatze-mailan mantendu dira, aplikatzen diren oinarrietan (taxien lizentzia kopuruak, eskatutako izapideak, eta abar) aurreikustekoa den egonkortasuna onartuta eta dagozkien zerga-ordenantzetan inolako aldaketarik egitea ez egonda aurreikusita, ezta aplikatzekoak diren tarifei dagokienean ere. Horrenbestez, kalkulatzen da soil-soilik joera-bilakaera izango dela, bariazio-tasa nuluarekin, Eskualdeko Hiri Garraioa ordaintzeko txartel berriak jaulkitzeagatik tasa salbuespen izanda, hari %2,5eko urteko bariazio-tasa aplikatu baitzaio.

Iruñerriko Ibai Parkeari eusteko udalek egiten dituzten ekarpenen diru-sarreretan eta antenak kokatzeagatik ondarezko diru-sarreretan, aldi osorako urteko %2,5eko hazkunde-tasa duen joera-proiektzioa aurreikusi da.

Egiturari eusteko SCPSAren ekarpenak eta Eskualdeko Hiri Garraioa finantzatzeko Nafarroako Foru Administrazioaren eta udalen ekarpenak kalkulatu dira, aurreko atalean aipatu denaren arabera, hurrenez hurren, egituraren gastuen eta garraio-zerbitzuen defizitaren aurreikuspenak zehatz berdintzeko moduan. Ondorioz, beren urte arteko bilakaera ez da gehiegi desberdintzen oro har aplikatutako %2,5etik.

Proiektzio hauen emaitza, kapitulu ekonomikoko mailan, taula honetan erakusten da:

Eurotan			
DIRU-SARRERA ARRUNTAK	2020. urtea	2021. urtea	2022. urtea
1. kap. Zerga zuzenak	0	0	0
2. kap. Zeharkako zergak	0	0	0
3. kap. Tasak, prezio publikoak eta beste batzuk	155.250	157.556	159.920
4. kap. Transferentzia arruntak	19.439.170	19.926.047	20.417.771
5. kap. Ondarezko diru-sarrerak	82.273	84.330	86.438
<b>Diru-sarrera arruntak, guztira</b>	<b>19.676.693</b>	<b>20.167.933</b>	<b>20.664.129</b>

### 5.2. 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planerako aurreikusitako kapitaleko diru-sarrerren bilakaera.

Plan honetan ez dago 2020-2022 aldian kapitaleko diru-sarrerren inolako aurreikuspenik.

### 5.3. 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planerako aurreikusitako finantzazko diru-sarrerren bilakaera.

Diru-sarrera hauen proiektzioa urteko %2,5eko hazkunde-tasa duen joera-bilakaera onartuta egin da, eta beren zenbatekoa zehatz dator bat aurrekontuan jasotako gastuekin, langileek eska ditzaketen maileguei arreta emateko, indarrean dauden lan-baldintzak aplikatzean.

Eurotan

<b>FINANTZAZKO DIRU-SARRERAK</b>	<b>2020. urtea</b>	<b>2021. urtea</b>	<b>2022. urtea</b>
8. kap. Finantzazko aktiboengatiko diru-sarrerak	20.500	21.013	21.538
9. kap. Finantzazko pasiboengatiko diru-sarrerak	0	0	0
<b>Finantzazko diru-sarrerak, guztira</b>	<b>20.500</b>	<b>21.013</b>	<b>21.538</b>

## 6. 2020-2022 ALDIRAKO GASTUEN AURREKONTU-PLANA

### 6.1. 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planerako aurreikusitako gastu arrunten bilakaera.

Gastu arrunten proiektzioa egin da, oro har, planeko ekitaldietako bakoitzerako urteko %2,5eko hazkunde-tasa duen joera-bilakaera hartuta, jarraian ageri diren zehaztasunak eta/edo salbuespenak kontuan hartuta:

- Langile-gastuak proiektatu dira hipotesi hau abiapuntu hartuta: egun indarrean dagoen Mankomunitatearen plantilla organikoa aldatu gabe mantentzea, bai lanpostuen ezaugarriei dagokienez, bai eta lanpostu horietan egun ari direnen baldintza pertsonalei dagokienez. Urteko %2,5eko hazkundearen oinarri orokorraren gainean, kasu honetan ordainketa-mailen gainean aplikatuta, baldintza pertsonalen bilakaeratik (antzinatasuna, gradua, familia-laguntza...) eratorritako bariazioak hartu dira aintzat, gainera.
- Finantzazko gastuen kapitulua, bere osotasunean, Mankomunitatearen egungo zor osoa eratzen duen mailegu bakar batetik eratorritako interesei dagokie, eta ez dago aurreikusita planak hartzen dituen urteetan beste ezertan zorpetzea. Mailegu horretarako aurreikusitako amortizazio-taulatik abiatuta kalkulatu da interesengatikoko gastua, une honetan dauden interes-tasen antzekoen arabera, eta, hortaz, gutxituz doan bilakaera du kapitulu honek.

Proiektzio hauen emaitza, kapitulu ekonomikoko mailan, taula honetan erakusten da:

Eurotan			
GASTU ARRUNTAK	2020. urtea	2021. urtea	2022. urtea
1. kap. Langile-gastuak	560.334	580.228	594.786
2. kap. Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	3.012.169	3.088.340	3.164.923
3. kap. Finantzazko gastuak	21.882	16.476	10.963
4. kap. Transferentzia arruntak	15.704.187	16.096.792	16.499.212
5. kap. Kontingentzia-funtsa	0	0	0
<b>Gastu arruntak, guztira</b>	<b>19.298.572</b>	<b>19.781.835</b>	<b>20.269.884</b>

### 6.2. 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planerako aurreikusitako kapitaleko gastuen bilakaera.

Kapitaleko gastuak soil-soilik dagozkio beste erakunde publiko batzuekin egin daitezkeen hitzarmenetatik eratorritako transferentziei, garraio-zerbitzua hobetzearekin lotutako azpiegitura-lanetarako, eta taxiaren sektorean inbertsioak egiteko diru-laguntzen deialditik eratorritakoei. Zerbitzu horiekin lotutako gainerako gastuen kasuan bezala, 2019rako zenbatetsitako gastuen oinarriaren gainean, urteko %2,5eko emendatzea aurreikusi da.

Hori hala izanik, kapitaleko gastuen aurreikuspena hau da:

Eurotan

<b>KAPITALEKO GASTUAK</b>	<b>2020. urtea</b>	<b>2021. urtea</b>	<b>2022. urtea</b>
6. kap. Inbertsio errealak	0	0	0
7. kap. Kapitaleko transferentziak	102.500	105.063	107.689
<b>Kapitaleko gastuak, guztira</b>	<b>102.500</b>	<b>105.063</b>	<b>107.689</b>

### **6.3. 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planerako aurreikusitako finantzazko gastuen bilakaera.**

Finantzazko aktiboengatiko gastuak langileei eman dakizkiekeen maileguen aurreikuspenari dagozkio, indarrean dauden lan-baldintzak aplikatzean. Diru-sarreraren 8. kapituluaren atalean aipatu dira, eta zenbateko haiei dagozkie zehatz-mehatz.

9. kapitulua, finantzazko pasiboena, Mankomunitatearen zorra osatzen duen mailegu bakarraren finantzazko amortizazioak eratzen du osorik. Plan honetan dauden proiektzioak mailegu horretarako aurreikusitako amortizazio-taulari dagozkio, egungo interes-tasen arabera.

Eurotan

<b>FINANTZAZKO GASTUAK</b>	<b>2020. urtea</b>	<b>2021. urtea</b>	<b>2022. urtea</b>
8. kap. Finantzazko aktiboak	20.500	21.013	21.538
9. kap. Finantzazko pasiboak	275.621	281.035	286.556
<b>Finantzazko gastuak, guztira</b>	<b>296.121</b>	<b>302.048</b>	<b>308.093</b>

## **7. 2020-2022 ALDIRAKO FINANTZA- ETA AURREKONTU-MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA ETA EGONKORTASUN-HELBURUAK BETETZEA**

### **7.1. Finantza- eta aurrekontu-magnitude nagusien bilakaera: aurrezteak eta zorpetzeak.**

2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planean zehar aurrezteak, gordinak eta garbiak, eta zorpetzeak izango duten bilakaera jarraian dagoen taulan erakusten da:

	Eurotan		
	2020. urtea	2021. urtea	2022. urtea
Diru-sarrera arruntak	19.676.693	20.167.933	20.664.129
Gastu arruntak (3. kap. kanpo)	19.276.690	19.765.360	20.258.921
Aurrezki gordina	400.003	402.573	405.208
Finantza-karga (Gastuen 3. eta 9. kapituluak)	297.503	297.511	297.519
Aurrezki garbia (Aurrezki gordina ken finantza-karga)	102.500	105.063	107.689
Zorpetze-maila (Finantza-karga bider 100, zati diru-sarrera arruntak)	%1,51	%1,48	%1,44
Zorpetze-muga (Aurrezki gordina bider 100, zati diru-sarrera arruntak)	%2,03	%2,00	%1,96

Aurreikuspenek saldo positibo neurritsua uzten dute agerian aurrezpen-kopuruetan, 2020-2022 aldian zehar mantentzen dena.

## 7.2. 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planean aurrekontu-egonkortasuneko helburua betetzea.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 11. artikulua hau jasotzen du:

*11. artikulua. Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioaren bideratzea.*

*1. Aurrekontuak eta herri-administrazioen eta sektore publikoko gainerako erakundeen gastuetan eta diru-sarreretan eragiten duten gainerako jarduerak egiteko, onartzeko eta gauzatzeko garaian, aurrekontu-egonkortasunaren printzipioari jarraituko zaio.*

*(...)*

*4. Toki-erakundeek oreka- edo superabit-egoeran egon beharko dute.*

*(...)*

*6. Egiturazko defizita kalkulatzeko, Europako Batzordeak aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudiaren esparruan erabilitako metodologiari jarraituko zaio.*

“Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoa Nafarroako Toki Erakundeetan aplikatzearen gaineko 1. informazio-oharrak” – Nafarroako Gobernuaren Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuko Kudeaketa eta Kooperazio Ekonomikorako Zerbitzuak 2012ko azaroaren 19an jaulkitakoa– honela garatzen du agindu hori:

*“Egonkortasun-helburua beteko da aurrekontu bateratuak aurrekontu-orekan egiten direnean, hau da, finantzazkoa ez den saldoa nulua edo positiboa denean.*

*Finantzakoa ez den saldoa hau da: diru-sarreretako 1. eta 7. kapituluaren arteko batura, ken gastuetako 1. eta 7. kapituluaren arteko batura.*

*Horrez gain, aurrekontu horretan aurreikusi beharko da magnitude horren saldo positibo bat, finantza-eragiketarako kitatzeko beharrezkoa den zenbatekoa duena (diru-sarreretako eta gastuetako 8. eta 9. kapituluaren arteko diferentzia).*

Aurretik erakutsitako proiektzioen arabera, “finantzaketa-gaitasuna edo -beharra” kalkulatu da jarraian, erabakigarria aurrekontu-orekan, Kontuen Europako Sistemaren (SEC) baldintzetan:

Eurotan			
FINANTZAZKO GASTUAK	2020. urtea	2021. urtea	2022. urtea
Diru-sarreretako 1. eta 7. kapituluaren artekoak	19.676.693	20.167.933	20.664.129
Gastuetako 1. eta 7. kapituluaren artekoak	19.401.072	19.886.898	20.377.573
<b>Finantzakoa ez den aurrekontu-saldoa</b>	275.621	281.035	286.556
(+/-) Finantzaketa-gaitasuna edo -beharra kalkulatzeko doitzeak.	0	0	0
<b>Finantzaketa-gaitasuna edo -beharra</b>	275.621	281.035	286.556
Finantzazko eragiketen saldoa	-275.621	-281.035	-286.556

Hemen ikusten da 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planak ez duela egiturazko defizitik Kontuen Europako Sistemaren baldintzetan, ekitaldi guztietan eta bakoitzean finantzaketa-gaitasun positiboa baitago eta finantzazko eragiketarako kitatzeko beharrezkoa den zenbatekoa baitago.

### **7.3. 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planeari gastu-araua betetzea.**

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12. artikulua hau jasotzen du lehen atalean:

“Administrazio Zentralaren, autonomia-erkidegoen eta toki-erakundearen gastu konputagarriaren aldaketak ezin izango du Espainiako ekonomiaren epe ertaineko barne produktu gordinaren hazkunderaren erreferentzia-tasa gainditi”.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren 15. artikulua arabera, Ministro Kontseiluaren erabakiz, Gobernuak urteko lehen seihilekoan, beste helburu batzuen artean, finantzakoa ez den gastuaren muga finkatuko du, Espainiako ekonomiako epe ertainerako barne produktu gordinaren hazkunderaren erreferentzia-tasaren arabera. Ministro Kontseiluaren azken erabakiaren arabera –haren bidez erabakita daude aurrekontu-egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak, administrazio publiko guztietarako eta azpisektoreetako bakoitzerako, 2018-2020 aldirako, eta Estatuko aurrekontuko finantzakoa ez den gastuaren muga 2018rako–, 2018ko uztailaren 20an hartutako erabakiaren arabera, 2019-2021 aldirako gastu-arauaren eraginetarako erreferentzia-tasa nominal moduan muga hauek finkatzen dira (urteko bariazioaren portzentajea):

2019	2020	2021
------	------	------

2,7	2,9	3,1
-----	-----	-----

2022an aurreikusitako bariazio-mugari buruzko informaziorik ez izatean, eta Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak (MINHAFP) ondoz ondo kaleratzen dituen gidetan azaldutako irizpideari jarraituta, hura zein den jakin bitartean, aldiko azken urteko tasa aplikatu behar da, eskuragarri dagoena: 3,1.

Gastu-araua betetzea egiaztatzeko erabakitako kalkulu-irizpideak eskema moduan erreproduziturik, 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-plan honetan dauden aurreikuspenen gainean aplikatuta, balio hauek lortzen dira:

Eurotan				
	2019. urtea (Betebehar aitortu garbien zenbatespena)	2020. urtea (Hasierako kredituen zenbatespena)	2021. urtea (Hasierako kredituen zenbatespena)	2022. urtea (Hasierako kredituen zenbatespena)
(+) Gastuetako 1. eta 7. kapituluen artekoak Kontabilitate publikoa SECeko baldintzetara eramateko doitzeak	19.377.020	19.401.072	19.886.898	20.377.573
(-) Inbertsio errealeen besterentzea	0	0	0	0
(+/-) Aurrekontuan aplikatzeko dauden hartzekodunak	0	0	0	0
Beste doitze batzuk	0	0	0	0
Finantzetakoak ez diren erabilerak, SECeko baldintzetan	19.377.020	19.401.072	19.886.898	20.377.573
(-) Zorpetzearen interesak	-27.184	-21.882	-16.476	-10.963
(-) Funtz finalistekin finantzatutako gastua, EB/AP	-18.463.168	-18.479.197	-18.942.752	-19.417.896
<b>= GASTU KONPUTAGARRIA</b>	<b>886.667</b>	<b>899.993</b>	<b>927.670</b>	<b>948.714</b>
Aurreko urteko gastu konputagarriaren gaineko bariazioa	-	%1,50	%3,08	%2,27
Erreferentzia-tasa nominal maximoa	-	%2,90	%3,10	%3,10
Gastu konputagarri maximoa	-	<b>912.380</b>	<b>927.892</b>	<b>956.428</b>

Erakusten den moduan, 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planaren ekitaldietako bakoitzeko gastu konputagarria gastu konputagarri maximoa baino txikiagoa da, aurre-aurreko ekitaldiko gastu konputagarriaren gainean aurreikusitako erreferentzia-tasa nominal maximoa aplikatzearen emaitza, eta, horrenbestez, ezarrita dagoen gastu-araua betetzen da.

#### 7.4. Zor publikoaren helburua betetzea.

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, aurrekontuak ezin izango du jaso beste zorpetze garbi bat, zorpetze berri horrekin, toki-erakundeak diru-sarrera arrunten gaineko zor biziaren ehuneko 75eko muga gainditzen badu.

Aurreko ataletan adierazi den moduan, erakundearen zorra mailegu bakar batek eratzen du, aurreikusita dagoenaren arabera 2024ko martxoan duena azken mugaeguna eta ezarritako baldintzen arabera amortizatzen ari dena. 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planean ez dago aurreikusita inolako zorpetze-mota berririk.

Lehenago adierazi den %75eko mugak erreferentzia egiten dion ratioaren bilakaera, 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-plan honetan jasotako aurreikuspenen arabera, hau litzateke:

	Eurotan		
	2020. urtea	2021. urtea	2022. urtea
Diru-sarrera arruntak, guztira	19.676.693	20.167.933	20.664.129
Zor bizia abenduaren 31n	932.546	651.510	364.955
Ratioa Zor bizia / Diru-sarrera arruntak	%4,74	%3,23	%1,77

2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-planeko aurreikuspenen emaitzan den zorpetze garbiak "Zor publikoaren helburua" betetzen duela ikusten da adierazitako terminoetan, eta erreferentziazko araudian jasotako %75a baino nabarmen txikiagoak diren balioak ditu.

#### 8. PASIBO KONTINGENTEAK

Pasibo kontingenteei dagokienez, 2020-2022 epe ertainerako aurrekontu-plan hau egiteko unean, Iruñerriko Mankomunitateak ez du ziurtasunik F.2.1.4.-Pasibo kontingenteak formularioan zerrendatuta dauden eta gerta litezkeen kontingentzietako bakar bat ere badagoenik (epe ertainerako aurrekontu-planen informazioa bidaltzeko Ministerioak kaleratutako gidan dagoen formularioa).



# ERANSKINAK

## 2020-2022 EPE ERTAINERAKO AURREKONTU-PLANA

(Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak (MINHAFP) kaleratzen dituen gidetan aurreikusitako formularioen arabera aurkeztua, komunikazio elektronikoa egiteko helburuetarako)

### F.2.1 Ingresos.

Datos económicos consolidados en euros, de las entidades que integran la corporación (AA.PP.)

En euros

	Año 2021 (Estimación de los Derechos Reconocidos Netos)	Tasa variación 2022/2021	Año 2022 (Estimación de las Previsiones Iniciales)	Tasa variación 2023/2022	Año 2023 (Estimación de las Previsiones Iniciales)	Tasa variación 2024/2023	Año 2024 (Estimación de las Previsiones Iniciales)	Supuestos en los que se basan las proyecciones/ Adopción de la medida
<b>INGRESOS.</b>								
Ingresos corrientes	24.872.100	-14,40%	21.289.766	-1,85%	20.896.182	2,50%	21.417.718	
- Derivados de la evolución tendencial (no afectados por modificaciones políticas)	24.872.100,48	-14,40%	21.289.766,34	-1,85%	20.896.181,99	2,50%	21.417.718,07	
- Derivados de modificaciones de políticas	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 1: Subidas tributarias, supresión de exenciones y bonificaciones volu	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 2: Potencias la inspección tributaria para descubrir hechos imponible	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 3: Correcta financiación de tasas y precios públicos	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 4: Otras medidas por el lado de los ingresos	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Ingresos de Capital	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
- Derivados de la evolución tendencial (no afectados por modificaciones política	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00	
- Derivados de modificaciones de políticas (*)	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Ingresos no financieros	24.872.100	-14,40%	21.289.766	-1,85%	20.896.182	2,50%	21.417.718	
- Derivados de la evolución tendencial (no afectados por modificaciones política	24.872.100,48	-14,40%	21.289.766,34	-1,85%	20.896.181,99	2,50%	21.417.718,07	
- Derivados de modificaciones de políticas (*)	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00	
Ingresos financieros	20.000	0,00%	20.000	0,00%	20.000	0,00%	20.000	
- Derivados de la evolución tendencial (no afectados por modificaciones política	20.000,00	0,00%	20.000,00	0,00%	20.000,00	0,00%	20.000,00	
- Derivados de modificaciones de políticas (*)	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Ingresos totales	24.892.100	-14,39%	21.309.766	-1,85%	20.916.182	2,49%	21.437.718	
- Derivados de la evolución tendencial (no afectados por modificaciones política	24.892.100	-14,39%	21.309.766	-1,85%	20.916.182	2,49%	21.437.718	
- Derivados de modificaciones de políticas (*)	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	

(\*) Únicamente cuantificar el impacto cuando exista variación (+ ó -) respecto al año anterior.

A) DETALLE DE INGRESOS CORRIENTES									
	Año 2021 (Estimación de los Derechos Reconocidos Netos)	Tasa variación 2022/2021	Año 2022 (Estimación de las Previsiones Iniciales)	Tasa variación 2023/2022	Año 2023 (Estimación de las Previsiones Iniciales)	Tasa variación 2024/2023	Año 2024 (Estimación de las Previsiones Iniciales)	Supuestos en los que se basan las proyecciones	
Capítulo 1 y 2 Impuestos directos e indirectos	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0		
Impuesto sobre Bienes Inmuebles	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0		
Impuesto sobre Actividades Económicas	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0		
Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0		
Impuesto sobre Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0		
Impuesto sobre Construcciones Instalaciones y Obras	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0		
Cesión de impuestos del Estado	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0		
Ingresos de capítulos 1 y 2 no incluidos anteriormente	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0		
Cap. 3 Tasas Precios públicos y otros ingresos	144.138,03	-2,77%	140.148,03	0,00%	140.148,03	0,00%	140.148,03		
Cap. 4 Participación en tributos del Estado	24.647.037,54	-14,53%	21.066.670,28	-1,88%	20.671.012,23	2,51%	21.190.422,77		
Resto de Transferencias corrientes (resto Cap.4)	24.647.037,54	-14,53%	21.066.670,28	-1,88%	20.671.012,23	2,51%	21.190.422,77		
Cap. 5 Ingresos patrimoniales	80.924,91	2,50%	82.948,03	2,50%	85.021,73	2,50%	87.147,27		
<b>Total de Ingresos corrientes</b>	<b>24.872.100,48</b>	<b>-14,40%</b>	<b>21.289.766,34</b>	<b>-1,85%</b>	<b>20.896.181,99</b>	<b>2,50%</b>	<b>21.417.718,07</b>		

B) DETALLE DE INGRESOS CAPITAL									
	Año 2021 (Estimación de los Derechos Reconocidos Netos)	Tasa variación 2022/2021	Año 2022 (Estimación de las Previsiones Iniciales)	Tasa variación 2023/2022	Año 2023 (Estimación de las Previsiones Iniciales)	Tasa variación 2024/2023	Año 2024 (Estimación de las Previsiones Iniciales)	Supuestos en los que se basan las proyecciones	
Capítulo 6 Enajenación de inversiones	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0		
Capítulo 7 Transferencias de capital	0,00	#DIV/0!	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00		
<b>Total de Ingresos de Capital</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00%</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00%</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00%</b>	<b>0,00</b>		

C) DETALLE DE INGRESOS FINANCIEROS									
	Año 2021 (Estimación de los Derechos Reconocidos Netos)	Tasa variación 2022/2021	Año 2022 (Estimación de las Previsiones Iniciales)	Tasa variación 2023/2022	Año 2023 (Estimación de las Previsiones Iniciales)	Tasa variación 2024/2023	Año 2024 (Estimación de las Previsiones Iniciales)	Supuestos en los que se basan las proyecciones	
Capítulo 8 Ingresos por activos financieros	20.000,00	0,00%	20.000,00	0,00%	20.000,00	0,00%	20.000,00		
Capítulo 9 Ingresos por pasivos financieros	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0		
<b>Total de Ingresos Financieros</b>	<b>20.000,00</b>	<b>0,00%</b>	<b>20.000,00</b>	<b>0,00%</b>	<b>20.000,00</b>	<b>0,00%</b>	<b>20.000,00</b>		

## F.2.2 Gastos.

Datos económicos consolidados en euros, de las entidades que integran la corporación (AA.PP.)

En euros

GASTOS	Año 2021 (Estimación de las Obligaciones Reconocidas Netas)	Tasa variación 2022/2021	Año 2022 (Estimación de los Créditos iniciales)	Tasa variación 2023/2022	Año 2023 (Estimación de los Créditos iniciales)	Tasa variación 2024/2023	Año 2024 (Estimación de los Créditos iniciales)	Supuestos en los que se basan las proyecciones/ Adopción de la medida
Gastos Corrientes	24.552.000	-13,54%	21.228.766	-1,86%	20.834.157	2,50%	21.354.642	
- Derivados de la evolución tendencial (no afectados por modificaciones políticas	24.552.000,31	-13,54%	21.228.766,34	-1,86%	20.834.157,00	2,50%	21.354.642,45	
- Derivados de modificaciones de políticas (*)	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 1	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 2	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 3	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 4	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 5	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 6	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 7	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 8	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 9	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 10	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 11	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 12	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 13 Reducción de la estructura organizativa de las EE.LL.	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 14	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 15 Otras medidas por el lado de los gastos corrientes	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Gastos de Capital	60.000	1,67%	61.000	1,68%	62.025	1,69%	63.076	
- Derivados de la evolución tendencial (no afectados por modificaciones políticas	60.000,00	1,67%	61.000,00	1,68%	62.025,00	1,69%	63.075,62	
- Derivados de modificaciones de políticas (*)	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 16 No ejecución de inversión prevista inicialmente	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Medida 17 Otras medidas por el lado de los gastos de capital	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Gastos no financieros	24.612.000	-13,50%	21.289.766	-1,85%	20.896.182	2,50%	21.417.718	
- Derivados de la evolución tendencial (no afectados por modificaciones políticas	24.612.000,31	-13,50%	21.289.766,34	-1,85%	20.896.182,00	2,50%	21.417.718,07	
- Derivados de modificaciones de políticas (*)	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Gastos financieros	280.100	-92,86%	20.000	0,00%	20.000	0,00%	20.000	
- Derivados de la evolución tendencial (no afectados por modificaciones políticas	280.100,17	-92,86%	20.000,00	0,00%	20.000,00	0,00%	20.000,00	
- Derivados de modificaciones de políticas (*)	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Gastos totales	24.892.100	-14,39%	21.309.766	-1,85%	20.916.182	2,49%	21.437.718	
- Derivados de la evolución tendencial (no afectados por modificaciones políticas	24.892.100,48	-14,39%	21.309.766,34	-1,85%	20.916.182,00	2,49%	21.437.718,07	
- Derivados de modificaciones de políticas (*)	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	

(\*) Únicamente cuantificar el impacto cuando exista variación (+ ó -) respecto al año anterior

A) DETALLE DE GASTOS CORRIENTES		Año 2021 (Estimación de las Obligaciones Reconocidas Netas)	Tasa variación 2022/2021	Año 2022 (Estimación de los Créditos iniciales)	Tasa variación 2023/2022	Año 2023 (Estimación de los Créditos iniciales)	Tasa variación 2024/2023	Año 2024 (Estimación de los Créditos iniciales)	Supuestos en los que se basan las proyecciones
Capítulo 1	Gastos de personal	580.958,33	2,88%	597.678,49	2,64%	613.443,68	2,94%	631.454,43	
Capítulo 2	Gastos corrientes en bienes y servicios	2.699.711,26	4,93%	2.832.704,66	4,00%	2.945.887,11	1,64%	2.994.156,94	
Capítulo 3	Gastos financieros	3.346,67	-90,81%	307,50	2,50%	315,19	2,50%	323,07	
Capítulo 4	Transferencias corrientes	21.267.984,05	-16,32%	17.798.075,69	-2,94%	17.274.511,02	2,63%	17.728.708,01	
Capítulo 5	Fondo de Contingencia	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
<b>Total de Gastos Corrientes</b>		<b>24.552.000,31</b>	<b>-13,54%</b>	<b>21.228.766,34</b>	<b>-1,86%</b>	<b>20.834.157,00</b>	<b>2,50%</b>	<b>21.354.642,45</b>	

B) DETALLE DE GASTOS DE CAPITAL		Año 2021 (Estimación de las Obligaciones Reconocidas Netas)	Tasa variación 2022/2021	Año 2022 (Estimación de los Créditos iniciales)	Tasa variación 2023/2022	Año 2023 (Estimación de los Créditos iniciales)	Tasa variación 2024/2023	Año 2024 (Estimación de los Créditos iniciales)	Supuestos en los que se basan las proyecciones
Capítulo 6	Inversiones reales	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%	0	
Capítulo 7	Transferencias de capital	60.000,00	1,67%	61.000,00	1,68%	62.025,00	1,69%	63.075,62	
<b>Total de Gastos Capital</b>		<b>60.000,00</b>	<b>1,67%</b>	<b>61.000,00</b>	<b>1,68%</b>	<b>62.025,00</b>	<b>1,69%</b>	<b>63.075,62</b>	

C) DETALLE DE GASTOS FINANCIEROS		Año 2021 (Estimación de las Obligaciones Reconocidas Netas)	Tasa variación 2022/2021	Año 2022 (Estimación de los Créditos iniciales)	Tasa variación 2023/2022	Año 2023 (Estimación de los Créditos iniciales)	Tasa variación 2024/2023	Año 2024 (Estimación de los Créditos iniciales)	Supuestos en los que se basan las proyecciones
Capítulo 8	Activos financieros	20.000,00	0,00%	20.000,00	0,00%	20.000,00	0,00%	20.000,00	
Aportaciones patrimoniales		0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00	
Otros gastos en activos financieros		20.000,00	0,00%	20.000,00	0,00%	20.000,00	0,00%	20.000,00	
Capítulo 9	Pasivos financieros	260.100,17	-100,00%	0,00	0,00%	0,00	0,00%	0,00	
<b>Total de Gastos Financieros</b>		<b>280.100,17</b>	<b>-92,86%</b>	<b>20.000,00</b>	<b>0,00%</b>	<b>20.000,00</b>	<b>0,00%</b>	<b>20.000,00</b>	



**F.2.4 Pasivos contingentes**

Pasivos contingentes (1)	Año 2021		Tasa variación 2022/2021		Año 2022		Tasa variación 2023/2022		Año 2023		Tasa variación 2024/2023		Año 2024		
	No incluidos en presupuesto	Incluidos en presupuesto	Total		No incluidos en presupuesto	Incluidos en presupuesto	Total		No incluidos en presupuesto	Incluidos en presupuesto	Total		No incluidos en presupuesto	Incluidos en presupuesto	Total
Avales concedidos	0	0	0		0	0	0		0	0	0		0	0	0
Préstamos morosos	0	0	0		0	0	0		0	0	0		0	0	0
Garantías	0	0	0		0	0	0		0	0	0		0	0	0
Por sentencias o expropiaciones	0	0	0		0	0	0		0	0	0		0	0	0
Otros	0	0	0		0	0	0		0	0	0		0	0	0
<b>TOTAL</b>	0	0	0		0	0	0		0	0	0		0	0	0

(1) Los pasivos contingentes son gastos que, en este caso, una administración pública tendrá que pagar si se produce una determinada situación y cuya obligación no está reconocida. Estos pasivos pueden estar previstos en el estado de gastos de presupuestos o no estarlo.

### F.2.5 Préstamos morosos

Información relativa a los préstamos (total y saldo en mora) concedidos por las Corporaciones Locales, Directiva 2011/85/UE.

	2021	2022	2023	2024
Saldo vivo (sin deducir deterioros) de los préstamos concedidos pendientes de amortizar (*) a 31/12 por:				
Administración General de la Corporación Local				
Organismos Públicos de la Corporación Local, clasificados en S.1313				
Resto de entidades controladas por la Corporación Local, clasificadas en S.1313				
<b>TOTAL SALDO VIVO DE PRÉSTAMOS CONCEDIDOS:</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
Desglose del dato anterior (saldo vivo) correspondiente a los importes en situación de mora (*):				
Administración General de la Corporación Local				
Organismos Públicos de la Corporación Local, clasificados en S.1313				
Resto de entidades controladas por la Corporación Local, clasificadas en S.1313				
<b>TOTAL IMPORTES DE PRÉSTAMOS EN SITUACIÓN DE MORA:</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>

(\*) se refiere a importes de préstamos concedidos a entidades que no consolidan dentro del Sector Administraciones Públicas, definido de acuerdo al SEC.